



**June  
Fernández**



KAZETARIA

## Gorputz kolonizatuak

GUATEMALAKO ERREPIDEETAN dauden iragarkiei erreparatuz, badirudi Amerikako Estatu Batuetan gaudela. Iragarki horietan agertzen diren pertsonak altuak, argalak eta ilehoriak dira, *Golden Retriever* txakurra eta guzti. Publizitateak produktuak saltzeko erabiltzen dituen modeloek gizarteak erakargarritzat dituen gorputzak islatzen dituzte. Erdialdeko Amerikaren kasuan, horrek agerian uzten du arrazakeria sinbolikoaren pisua. Biztanle gehienak indigenak edo mestizoak diren arren, arrakastaren aurpegia txuria baita.

Euskaldun txuri, ezkertiar eta antiarrazista izanda, erraza da Erdialdeko Amerikara heltzea eta jendarteak barneratutako arrazakeria horren aurrean gupida sentitzea. Emakumeek daramatzaten takoi altuak ikusi, edota gehienek ile kizkurra litzateke duten joera ikusi, hauxe pentsatuen: “Tamalez, euren gorputzak oraindik ere kolonizatuak daude”. Baina ondoren nire buruari galdetu nion: “Eta nire gorputza ba al dago kolonizatu?”.

*Feministok ez depilatzearen aukera aldarrikatzen dugu, baina onartu behar dut kostatzen zaidala emakumezko gorputz oso iletsua desiratzea. Eta ni (depilatzen ez naizenean) iletsua naizenez, emakume iletsuak gustuko ez izatea, nire gorputza den bezala gaitzesten dudanaren adierazle da*

Erdialdeko Amerikan sentipen gogai-karri eta aitorrezina izan dut. Onartzea gorroto badut ere, hemengo pertsona gehienek aldean altua eta argala izatea atsegin dudala sentitu dut. Ez beti, sistema kapitalista heteropatriarkal honetan emakumeak ez baikaude inoiz gure gorputzarekin guztiz konforme. Batzuetan emakume latinoen azala, ilea eta gorputzaren sentsualitateak inbidia sentiarazi didate. Jakin badakit hori kutsu arrazista daukan estereotipoa dela, baina zaila da estereotipoen eragina saihestea. Era berean, Suedian egongo banintz, baxuegia eta borobilegia sentituko nintzateke. Ez

da kasualitatea herrialde aberatsetako edertasun eredu izatea herrialde txiroetan ere inposatzen dena. Kolonialismo politiko eta ekonomikoari sinbolikoa gehitu behar diogu. Diskurtso politiko jakin bat izateak ez ditu automatikoki gorputzekin dugun harremanetan arrazakeria, sexismoa eta kolonialismoaren aztarnak erabat ezabatzen.

Baina beste gauza bat ere gertatu izan da: Erdialdeko Amerikan emakume gehienak ni baino baxuagoak eta potoloagoak direnez (*chaparrita-o* erabiltzen da gorputz mota hori deskribatzeko), liraintasunaren eredu zorrotzetik urrun dauden gorputz horiek desiratzeko aukera ere izan dut.

Pentsa: gure gorputza eta auto-estimua gain, gure desioa ere kolonizatu daukagu. Komunikabideek transmititzen digute gorputz erakargarriak argalak, altuak eta gazteak direla. Larruazalak ez duela ez zimurrik, ezta ildorik, ezta ilerik izan behar. Feministok ez depilatzearen aukera aldarrikatzen dugu, baina onartu behar dut kostatzen zaidala emakumezko gorputz oso iletsua desiratzea. Eta ni (depilatzen ez naizenean) iletsua naizenez, emakume iletsuak gustuko ez izatea, nire gorputza den bezala gaitzesten dudanaren adierazle da.

Desioaren funtzionamenduan inguruan arrazionalizatzea zentzugabea dela pentsa genezake, baina uste dut garrantzitsua dela estetikaren eredu hegemoniko horren eragina behatzea eta, estereotipoak gaindituz, gorputz anitzen indar erotikoa ikertzea.

Esparru feministetan gero eta gehiago hitz egiten da “Iodifobia”ri buruz; ez depilatzeari buruz, ezgaitasunen bat duten pertsonen zein adineko emakumeen sexualitateari buruz. Gorputz, desio eta sexu praktika anitzak politikoki aldarrikatzea behar-beharrezkoa iruditzen zait, baina benetan lortu al dugu edertasunaren agindu zorrotzak kolokan jartzea eta erotismoaren mugak zabaltzea? *Txokorro feministak* dioten bezala (Youtuben bila ezazue bideoa), uda garaian bikini-operazioa pikturara bidali eta gorputzak eta desioak deskolonizatzea izan daiteke erronka ederra. ■

